

Sarean buletina

Beta 1zbk

SARRERA



Kaixo eta ongi etorriak izan zaitzteela Gipuzkoa Sarean-eko buletin honetara!

Sarearen barruan egiten ari garen lana prozesuan parte hartzen duten eragileen artean komunikatzeko beharra behin eta berriro azpimarratu da Gipuzkoa Sarean osatzen duten taldeen gogoetetan. Helburu horrekin, eta zuen artean loturak sendotzeko

eta harreman berriak sortzeko asmoz, hainbat komunikazio tresna jarri nahi ditugu abian, aurrera eramaten ari garen prozesuei buruzko informazioa eskaintzeaz gainera, elkarrizketa eta guztion parte hartzea ere bultzatzeko. Gaur *Sarean buletinaren* lehenengo alea aurkeztu nahi dizuegu: Gipuzkoa Sareaneko taldeek egiten duten lanaren berri eman nahi dizuegu bertan, eta lurralde garapenaren prozesuari buruzko gogoeta sustatu. Urrats txiki bat da, eraiki nahi dugun komunikazio estrategiaren barruan. Horregatik, eta, ahal den neurrian, zuen beharretara egokitzeko, buletinaren azpian aurkituko duzuen formularioa betetzea eskertuko dizuegu.

Buletinaren lehenengo ale hau baliagarria izatea espero dugu. Badakizue zuen iradokizunen zain gelditzen garela.

Hurrengo lan bileretan ikusiko dugu elkar!

SAREA GAUR

Hausnarketatik....

Lurralde garapena... baina, zein lurralde garapen?

Gipuzkoa Sarean lurralde garapenerako eredu berri baten proposamena da Gipuzkoarentzat. Proposamen honen lanketak hiru oinarri izan ditu: ekintzara bideratua izatea, eskualdeak barne hartzea eta parte hartzailea izatea. Foru Aldundian **Francisco Alburquerque**-rekin egindako hausnarketa prozesuan oinarri hauekin bat datorren lurralde garapenaren definizioa garatu dugu: **“LURRALDE GARAPENA eragile publiko eta pribatuen mobilizazio eta parte hartze prozesua da non banakako edo izaera kolektiboko jarduerak gidatuko dituzten estrategiak eztabaidatu eta adosten diren”**. Definizio sinplea da bere formulazioan, baina eraldaketa sakona dakarrena praktikara eramanez gero. Gipuzkoa Sarean-en helburua definizio honetatik abiatu eta dialogoa irekitzea da, guztion artean

...Ekintzara

Eskualde bakoitzean gaitasunak sortuz

2013ko urritik Gipuzkoako eskualde bakoitzeko bi fasiladore gaikuntza prozesu batean parte hartzen ari dira, eskualde bakoitzean lurralde garapenerako eredu berria landu ahal izateko. Urtarrilean formakuntza prozesu honen bi saio ospatu dira: Urtarrilaren 21ean, Goierrin, **Koldo Saratxagarekin** estrategien inguruko ideiak partekatu genituen, eta Urtarrilaren 30ean, Debarbarrenan **Prometeako**en laguntzarekin parte hartze dinamikak lantzen hasi gara.



Sustapen mahaia eta Energia mahaia martxan dira

Eskualdetako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak osaturiko talde propio hauek abenduan hasi ziren lanean eta jada Sustapen Mahaia bi aldiz eta Energia Mahaia behin bildu dira. Energia Mahaia Goierrin ari da biltzen eta Sustapen Mahaia Urola Erdian. Talde hauen bidez Gipuzkoa Sareanek proposatzen duen harremantze eredu berria helburu konkretuetara bideratzen da, elkarrekin lan egiteko modu berri bat garatuz.



Eskuartearen dugun eraldaketa prozesua noraino da sakona?

Gipuzkoa Sarean lurralde garapenera hurbilpen berri batean dago oinarritua. Era honetako proposamenak sarri azaleko eraldaketa moduan geratzen dira, gure lan egiteko moduak eraldatu gabe. Hau ekiditeko lantzen ari garen ikerketa prozesuan, Zubigintzan, hurbilpen honen garapena noraino iritsi

daitekeen aztertzen ari gara. Abenduaren 11ean **Francisco Albarquerque** ikertzailearen eskutik gobernuaren lan taldeetako batean eztabaida eta gogoeta aberasgarriak irten ziren, laister Gipuzkoa Sareaneko beste taldeetan landuko direnak.

Gipuzkoako unibertsitate, teknologia zentro eta Gipuzkoa Berritzen-eko kideak Sarean

Aipatutako erakundeetako kideekin *Ikuskaritza taldea* osatu da Gipuzkoa Sarean. Taldeko kideak beren



papera eta laguntzaren nondik norakoa definitzen jardun dute azkenengo hilabetetan. Otsailaren 5ean hasi zuten eskualdeekin kontaktua, Eibarren egin zen topaketarekin. Bertan Oarsoaldeak, Tolosaldeak, eta Debagoienak bere eskualdeen aurkezpenak egin zituzten, ikuskariekin elkarlanean elkarrengandik

ikasteko prozesu bat abian jarriz.

BERRIKETAN

Koldo Saratxagarekin



Urtarrilaren 21ean eskualdeetako fasilitadoreek Koldo Saratxagarekin Gipuzkoa Sarean en estratejiaren inguruan hausnarketa egiteko parada izan zuten. Gogoetak gai ugari hartu zuen barne. Atal honetan

Gipuzkoa Sarean en strategiari loturik esanguratsuak iruditu zaizkigun esaldi batzuk ekarri ditugu, bertan izandako dialogoan ispilu.

- **Gaitasunek batura dakarte; jarrerak, ordea, biderketa.** Dakizuna versus sentitzen duzuna.
Pertsona biderkatzaileak behar ditugu
- **Aldaketaren inguruan adostasunik ez badago, ez dugu aurrera egingo**
- **Norbaitek hartu behar du aitzindaria, baina besteak ere aintzat hartuta, alegia, guztion energia erabiliz**
- **Gure herrian, zenbateko potentziala dugu, harremani begirata?**
- **Kostatu egiten da "ohitura txarrak" aldatzea.** Ikuspegi intelektualetik, baietz esango duzu; baina, jarrerak, beste kontu bat da hori. Eta kostatu egiten da
- **Ez diogu uztari begiratu behar, baizik eta eriteari, etorkizunera begirata. Hitz egin eta proiektu komunak aurrera eraman, pertsona eta baliabide berekin**
- **Harremanak hitza gakoa da gizateriaren etorkizunean.** Beste modu batera erlazionatu behar gara
- **Pedagogia egin behar da, kultura aldatzeko**

AGENDA

Sarea lanean... otsailean

- **2014/02/05-9:00tan:** Debarrena, Eibar. *Peer Review*, Ikuskaritza taldearekin (Oarsoaldea, Tolosaldea eta Debagoienaren aurkezpenak)
- **2014/02/17-9:00tan:** Urola Erdia, Azkoitia. Sustapen mahaiaren bilera
- **2014/02/19-9:00tan:** Urola Erdia, Azpeitia. Eskualde arteko mahai
- **2014/02/20-9:00tan:** Debagoiena, Arrasate. Formakuntza prozesuaren saioa "Parte hartze dinamikak"
- **2014/02/26:** Tolosaldea. Ikuskaritza taldeko bisita
- **2014/02/27:** Debagoiena. Ikuskaritza taldeko bisita

AZKENA

Gipuzkoa Sarean ereduak Valentzian aurkeztu dugu



Zubigintzako kide den Orkestrako Miren Larreak Valentziako "Ciudadanía empoderada: cultura y participación para el desarrollo local" kongresuan aurkeztu zuen "Gipuzkoako lurralde garapenerako hurbilpen berri baten proposamena" dokumentua. Parte hartzaileak batez ere Valentzia, Katalunia, Alikante eta Madrileko unibertsitateetatik eta lurralde garapenerako erakundeetatik zetozen eta garatzen ari garen prozesuak ikusmin handia sortu zuen. Aurkezpena **Ciudadanía Empoderada: cultura y participación para el desarrollo local** liburuan jaso dute. "¿Hacia dónde evoluciona la participación para el desarrollo territorial? Reflexiones desde Gipuzkoa" tituluaren izenpean.

Eman zure iritzia

LEGE OHARRA: Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Legea eta Informazioaren Gizarteko eta Merkataritza Elektronikoko Zerbitzuei buruzko 24/2002 Legea betez, jakinarazi nahi dizugu zure datuak fitxategi automatizatu batean gordeko direla, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa. Posta elektronikoz Gipuzkoa Sarearen jardueren inguruko informazio gehiago jaso nahi ez baduzu, bidali berriro mezu elektronikoa hau ondoko helbidera: ugaitziturbe@gipuzkoa.net. Gaian BAJA EMAN adieraziz.

[unsubscribe from this list](#) [update subscription preferences](#)